

1.b. erreminta. Irakasleak.

MARKO KONTZEPTUALAK KONPARTITZEN

A) Bete ezazue erreminta talde handian adosturiko emaitzekin. Adierazgarria iruditzen zaizuen guztia “komentario eta oharrak” atalean idatz ezazue.

| BAIEZTAPENAK | Emakume-kopurua: ... | | | | Gizon-kopurua: ... | | | |
|--|----------------------|------|--------|------|--------------------|------|--------|------|
| | KONTRA | ADOS | KONTRA | ADOS | KONTRA | ADOS | KONTRA | ADOS |
| 1. Elkarbizitza berez ez da helburua, irakatsi eta ikasi egiten dela bermatzeko bide baikik. | 1 | 2 | 3 | 4 | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 2. Ikastetxearen antolakuntza, ikasgaien programazioak, metodologia harreman motak... gatazka desberdinak sortarazi ditzakete. Beraz, ez dugu pentsatu behar gatazka guztien kausa ikasleen edo irakasleen arazo pertsonalak direnik. | 1 | 2 | 3 | 4 | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 3. Gure pentsamenduek gure emozioak eta sentimenduak baldintzatzen dituzte eta horiek gure jokabidea markatzen dute. Hortaz, pentsamendu, sentimendu eta jardueraren arteko koherentzia funtsezkoa da norberaren nahiz ikastetxearen ongizaterako. | 1 | 2 | 3 | 4 | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 4. Ikastetxeko elkarbizitzan irakasleek euren lanari buruzko hausnarketa egiteko duten gaitasunak eragina du. Baita ikasleei interes-, gogo-, emozio-, sentimendu- eta ideiak adierazten lagunduko dieten metodologia berrieekin esperimintatzeko dituzten gaitasunak ere. | 1 | 2 | 3 | 4 | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 5. Diziiplina-arazo guztiak, arautegi on batekin konpontzen dira. | 1 | 2 | 3 | 4 | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 6. Ikastetxeetan etengabe elkarbizitzari buruzko kezak izaten dira, baina ia inork ez dio gaiari behar bezala heltzen elkarbizitza kudeatzeko programa bat eginez. | 1 | 2 | 3 | 4 | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 7. Batzuetan, ikasleekin izaten ditugun gatazkak edo ikasleen artekoak, egoera pertsonalen ondorio izaten dira. Izan ere, sentitzen duten segurtasun falta, arreta edo afektu beharrari erantzun bat bilatzeko modu bat dira. | 1 | 2 | 3 | 4 | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 8. Ikastetxeko estamentu guztiek, eta batez ere ikasleek, benetan parte hartzeko bideak izateak, batetik, pertinentzia sentimendua sustatzen du, eta, bestetik, eskolako giroa eta elkarbizitza hobetzen laguntzen du. | 1 | 2 | 3 | 4 | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 9. Elkarbizitza positiboak, guztion artean (ikasleak, irakasleak, gurasoak eta administrazioako eta zerbitzuetako pertsonala) arau argi batzuk adostea eskatzen du. Autonomia, erantzukizuna eta hezkuntza-komunitatekideen aldaketarako eta hobetzeko gaitasuna sustatzen duten arauak. | 1 | 2 | 3 | 4 | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 10. Ondo ordenatuta dagoen gelan (edo ikastetxean), norberak garbi baldin badu zer egin behar duen eta nola, zer espero duten besteek berarengandik, normalki, ez da elkarbizitza arazorik izaten. | 1 | 2 | 3 | 4 | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 11. Aisialdirako espazioak, jantokiak, pasabideak, autobusak... autoerregulatu egiten dira eta bertan ez da aldaketarik egin behar, ez baitute ikasketaren garapenean eraginik. | 1 | 2 | 3 | 4 | 1 | 2 | 3 | 4 |

Urteko Bizikidetzaren Plana eratzeko Gida (UBP)

.....

| | | |
|---|----------------|----------------|
| 12. Indarkeria ikasi egiten da eta desikasi ere egin daiteke. | 1 2 3 4 | 1 2 3 4 |
| 13. Elkarbizitza Plan on batean, gatazkak konpontzeko metodologia-proposamenak egiteko unean lehentasuna eman behar zaie gatazkaren protagonisten emozioei eta elkarrizketari, eta sustraiko arrazoiak zeintzuk diren aztertu behar dira. | 1 2 3 4 | 1 2 3 4 |
| 14. | 1 2 3 4 | 1 2 3 4 |
| ... | | |

B) Oinarritzotzat jotzen duzuen hiru gai adostu. Azpimarratu nahi duzuen ideia era positiboan eta guztiz argi gera dadin, esaldiak berridatzi.

1.

2.

3.

Komentarioak eta oharrak: